



K herrialdea

Juan Kruz Igerabide

2006ko "Baporea" Saria

DENBORA bat baino haratago eta beste denbora bat baino honatago, bazen K izeneko herrialde bat. Alexandro K zen hango errege gazte-gaztea, eta ospetsuak ziren herrialde hartako K kakotxak, artisau trebeek eginak. Kakotxak han, kakotxak hemen, itxura eta tamaina guztietako kakotxak egiten zituzten, edozertarako. Ez zegoen tresnarik, ez arroparik, ez eraikinik, han eta hemen kakotxen bat ez zeukanik: kakotxak, eusteko; kakotxak, lotzeko; kakotxak, apaintzeko... kakotxez kakotx ibiltzen ziren herrialde hartako jendeak.

Alexandro K erregeak, aurrerazale eta abenturazale baitzen, burutazio bat izan

zuen: erresumako artisauek formula sekretuen bidez egiten zituzten tresna paregabe haiek beste herrialde batzuetan ezagutaraztea.

–Bidaia luze bat egin behar dut –adierazion lehen ministroari-. Auzo dugun T herrialdera joango naiz, aspaldiko ezinikusiak ahaztuta. Gure artisauek egiten dituzten kakotx zoragarriak erakutsi nahi dizkiet, ea erosten dizkiguten, edo, bestela, ea truke bat egiten dugun haien torlojurik onenekin, ondo etorriko zaizkigu-eta gure makina eta tresnetarako.

Alexandro K erregeak mezu bat bidalizio T herrialdeko errege gazteari, Raimundo T aspaldikoari. Umetan elkarrekin igaroak zituzten oporraldi asko, baina aspaldidanik elkar ikusi gabe zeuden, umeen arteko borroka eta ezinikusiak izan baitzituzten; Alexandrok esana zuen ez zuela gehiago ikusi nahi Raimundo T tentel eta txorogaiztoa, baina urteak joan ahala umetako ezinikusiak ahaztu egiten dira.

Mezuak, erditik tolesturik eta kakotx txiki eta fin batez estuturik, honela zioen: “Ave, Rai. Zenbat denbora elkar ikusi gabe! Bisita bat egin nahi nizuke, nola bizi zaren ikusi, zure herrialdea ezagutu, zuen paisaia zoragarriaz gozatu eta zuen janari gozoak dastatu. Eta, bide batez, negozioren bat ere egin genezake. Zer iruditzen?”.

Uso mezulari baten bidez bidali zion mezua, uda jaioberriaren zeru urdinean barrena.

Berehala iritsi zen erantzuna. Uso berberak ekarri zuen, biribildurik eta zilarrezko torloju batez estuturik. “Ave, Alex. Nahi duzunean etor zaitezke; mugan itxarongo dizut, gardien etxolan, izozki bat janez. Badakizu; udan izozkiak saltzen ditugu mugako etxoletan”.

Alexandro K erregeak zalgurdi bat prestatzeko agindu zuen, noizean behin paseatzera irteteko erabiltzen zuenetako bat. Behar-beharrezko jantzi eta trasteak soilik hartu, eta abiatzera zihoan, eskoltarik eta segiziorik gabe, bera bakar-bakarrik.

–Bakarrik al zoaz, Alexandrotxo? –galdetu zion arreba txikiak, Paulovak.

–Nirekin etorri nahi, ala? –esan zion Alexandrok, harriturik, arrebari ez baitzitzaien batere gustatzen bidaiatzea.

Arreba txikia ez zen preseski txikia; aitzitik, bat laurogeita hamar luze, kirolzalea, pisu-jaurtiketan trebea, negu betean igerileku ia izoztuan eta erreka ia hormatuetan bainatzen zen emakume zaildua. Gurasorik ez zuten, aspaldian hilak baitziren. Neba-arrebak ziren familia bakarra.

–Zurekin joan nahi dut T herrialdera –erantzun zion Paulovak.

Paulovak, egia esan, ez zeukan bidaiatzeko batere gogorik, baina ez zuen neba bakarrik utzi nahi, negozioetarako baldar samarra baitzen, torloju herdoildu batzuen truke zilarrezko kaketx finak emateko gauza. Gainera, negozioetarako T-tarrek zuten trebetasun izugarriaren jakitun zen Paulova; haiekin trukean hasten zirenak liluratu egiten zituzten, eta beti irabazian irteten ziren. “Nire

neba hain da kuxkuxeroa... lau asmakuntzarekin harriturik utziko dute, eta itxurarik gabeko kontratuak sinatuko ditu, ziur. Nire herrialdearen interesak zaindu behar ditut”, esan zion bere buruari. Azkenik, ez zuen ahazten, ezin zuen ahaztu, zein gaiztoa zen Raimundo T umetan. Paulova haurtzaroan neskabila argal eta indar gutxikoa izana baitzen, Raimundo bihurriak bultza egiten zion, eta gainera jauzi, eta ileetatik tiratu, eta negarrez uzten zuen noiznahi. Paulovagatik haserretu ziren Alexandro eta Raimundo umeak, eta borroka egin zuten, eta elkar gehiago ikusiko ez zutela agindu zuten. Baina umetako kontu horiek ahaztu egiten dira handitzean. Alexandrok eta Raimundok ahaztuak zituzten, itxura guztien arabera; Paulova, ordea, ez zen batere fidatzen Raimundoz. “Lehenago lepotik burua horrek, seguru”, pentsatzen zuen berekiko.

–Elkarrekin joango gara, orduan –esan zion Alexandrok.